

## Gure Ondaria zaindu guran

## ERROTAK ( I )

**E**rrotia beti egon da lotuta baserriko bizimoduari. Gipuzkuako baserriak gehixen eukan herrixa izanda, Oñatin derrigor egon biharko ziran errota asko historixan zihar. Gaiñera, Erdi Arua ezkeroztik behintzat, errota-harrixairi mobiu eragitteko ur-saltuaz balixaitten ziran; gure artian erreka faltarik etzan ezkerro, presak, malatuak, andapararak eta errotrak laister ugarritu ziran Zubillagatik Araotzeraiño.

Dana dala, beste sail askotan letxe, jauntxuak eta haundixiak kontrolaitten zittuain gehixenetan errotrak be. Gebaratarren mendian egozen baserriarrak euren laboriak kondiaren errotetan ixoteko obligazifua eukain, hau da, **Olalde, Liñantzibar eta San Migelen**. Azkenengo hau San Juan kalian eguen, orain zerria dan lekuan, eta parroxiaren izenian agertu arren, elizia bera Gebara famelixiaren patronatokia zalako, azkenera orduko hango irabazirik haundixenak Oñatiko jaunen eskuetara faten ziran.

Hala ta guztiz, kondianaz aparte pittinka-pittinka beste errota batzuk be

jasotiari ekin otzain: adibidez, herriko kontsejuak berak 1488xan **Lamiategin**, edo beste haundiki batzuek (**Lazarragatarrak**) 1514. urtera orduko **Bidaurreta** eta **Araotzen** egin ebeñak. **Olaldekoa**, bestalde, **Maria Perez Bidaurretakuak** kondiari erosi otzan 1512xan. Hamaseigarren mendiaren akabera aldera **Aloñape** honetan gutxienez dozena bat errota baziran, eta berrehun urte geruago hogetahiru. Hurrengo batian emungo dittugu banan-banan bakoitzaren xehetasunak, orain horretan hasteia luziegixa izango litzake eta.

Garixa eta artua izaten ziran gehixen ixoten ziran laboriak eta errota askotan harri diferentiak egoten ziran baterako nahiz besterako. Pagaitteko, barriz, modu bat baiño gehixago ebalten zan, baiña korrientiena jenerotan ordainketia izaten zan; esaera zahar batek erakusten doskunez, errotiak bederatziz kolpe kanporako egitten zittuan eta hamargarrena etxerako. **Lakia** esaten xakon kobrantza-modu honi eta garai edo leku batzutatik bestetara aldatu

zeikien, baiña gehixenian ehuneko hamar horren inguruan errenditten zan. **Lakia** eta errota beste hainbat gora-behera dirala eta, hamaika ipuin, broma, esaera eta bertso asmau eta sortu da errotarixen kontura. ■

JERARDO ELORTZA



Tokillo Errota

CASA  
AGUIRRE

Gizonezko eta  
emakumezkoen...  
MODAN  
punta puntakoak  
gaituzu

Bidekurutzeta 18 - BERGARA